

B

BARREN

TOKIKOM

BASQUE  
CENTER

OPEN TO THE PUBLIC

601



**Inoiz ez da berandu**

Umetako lagunekin batu da Sotero Manzidor, Ameriketean

# HILEKO AZKEN ZAPATUKO FERIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN

PINTXOAK

1€

Pa amb tomaquet  
urdaiatzpikoarekin



Txorizo egosia



ZAPATU GOIZARI IKUTU BEREZIA EMAN NAHI BADIOZU

ETORRI KULTUR ETXE PARERA

Goi mailako pintxoak, euro baten truke, 11:00etatik aurrera

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

## Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

### Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka.
- Komunikazio klaseak.
- 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
- 3 ordu astean. (Goizez eta arratsaldez)

2013-2014 kurtsoa urriaren 1ean hasiko da eta ekainaren 20an bukatuko da

## Industry Language Services

Informazioa, matrihula eta ordutegia

9 4 3 7 4 4 0 4 0

w w w . i l s . e s

# ILS





Miren Vives

Itzuli gara errealiterara eta honekin batera gure egunerokotasunaren eszenatokietara. Udararen aire libreaz gozatze-ko aukera bikaina izan dugu: etxean baino gehiago kaleran egon gara, eta mendia eta hondartzaz gain, bisitatu ditugun herri eta hirietako espazio publiko-az ere gozatu dugu. Eta hona gaurko saiorako



Esti Gonzalez

aukeratu dudana gaia, Esti: jolas parkeak.

Jolasa oso gai serioa iruditzen zait, baina gutxitan ematen zaio duen garrantzia. Gaur egun edozein herritan aurki ditzakegun jolas parke askok nolabaiteko zoo-ak iruditzen zaizkit: hesi bat dago jolasgune eta errealitate arriskutsuaren artean, eta haurren jolas errepikakorren lekuko hutsak bihurtzen gara. Hesi hori fisikoa edo-eta koloretazko zoru bigunak mugatutakoa da, baina garbi uzten du non jolastu dezaketen haurrek segurtasunez.

### “Jolasa horren seguru bihurtzen dugunean jolasa al da?”

Eta hortxe dago, nire ustez karkoa: segurtasunean. Jolasa horren seguru bihurtzen dugunean jolasa al da? Ekipamendu hauek jolaserako modu bakarra eskaintzen dutenean, jolasak al dira? Arriskurik gabe ba al dago ikasterik?

Zenbait herrialdetan (batez ere Australia eta Erresuma Batuan) *Adventure Playgrounds* edo *Natural Playgrounds* delakoak ugaritzen ari dira. Jolas parke hauen funtsa material naturalen erabilpenean eta arrisku onargarriaren inguruan eraiki dute; espazio natural batek eskaintzen diezazkigukeen aukerak piskat domestikatu eta hirietan jartzean, alegia. Jolasak sor dezaken zirrara eta onartzeko prest gauden arrisku maila balantza batean jarriz gero oreka lortzea ez da lan erraza, baina asko pentsa arazten didan zer-bait da. Zu ere jolas parketan espezialista izango zara honez gero. Zer iritzi duzu honi buruz?

Espezialista ez dakit, baina orduak pasatzen ditugu parkeetan azken urteetan, Miren. Behaketa honek leku batzuk umeak hazteko eta hezteko besteak baino arrotzagoak direla ere erakutsi dit. Aurtengo udan Bartzelonako hainbat jolas parke bisitatzeko aukera izan dugu, eta parkeak barrera fisiko batekin guztiz hesita daude, ate eta guzti! Gurasoentzako bankuak, aldiz, kanpokaldean, zuk deskribatutako zoonentsazioa nabarmenduz. Alde horretatik begiratura, haurrak Mendaroko moduko herri txiki eta seguruan hazteak dituen abantailak ekarri zizkidan gogora, umeen autonomia garatzeko erreztasunak esaterako.

### “Orokorrean, haurrak larregi babesten ditugun gizarte batean bizi gara”

Baina funtsean arrazoiak ematen dizut. Gizarte honetan dena antolatuta eta definituta daukagu. Jolasteko jolas parkera goaz, emozioak nahi baldin baditugu, aldiz, jolas parke tematikora, arriskua zer den ahaztu ez dezagun. Espontaneotasuna galduz eta artifizialtasuneruntz goazela dirudi. Oraindik gogoratzen dut, txikitik, Kilimoi errekan, Billale baserri parean zeuden kainaberak jasotzera joaten gine-neko garaia. Tutuak egiteko erabiltzen genituen, baina horretarako Billaleko zelaian zeuden behien adar zorrotzen begirada mehatxaria jasan behar genuen. Karreraxoren bat ere egindakoak gara.

Dena den, jolas parkeak hezteko moduaren isla bat direla uste dut. Orokorrean, haurrak, zentzu askotan, larregi babesten ditugun gizarte batean bizi gara. Arriskuak ezabatu nahi ditugu, eta ez dugu ahaztu behar gure haurren heziketaren zati garrantzitsu bat arriskuen kudeaketa dela. Hazten direnerako arriskuz betetako gizarte bat dute zain, eta gure erantzunkizuna da bertan bizitzeko haurrak prestatzea, gehiegizko babes hori ez dadin frustrazio bihurtu.



**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak eratzia  
Lantekura: eguzki, aluminio, PVC  
Pintura orokorra

**GRUP  
VILARCHAO**

San Roke, 7 behea  
Pol. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 749 676

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

## Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALEA

elgoibar  
biZi biZKai



MENDAKOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Erabilia sentitu naiz

Lan eskaintza ikusi nuen: *Zuzendari administraria behar da. Profila: Goi mailako prestakuntza unibertsitarioa, EGA edo antzekoa, eza guera informatiko sendoak... Baliotsiko da: Elgoibarren bizitzea eta irakaskuntzan esperientzia izatea.*

Aukeratze prozesua "...giza baliabideen arloko aholkularitza konpainia independente" batek zuzentzen zuen. "... Bereziki espezializata dago zuzendariak, erdi mailako agintariak eta profesional kualifikatuak bilatzeko, erakartzeko eta hautatzeko prozesuetan...".

CVa bidali nuen. Deitu egin zidaten. Bilbo-ra joan nintzen, autopista, gasolina, parkinga, urduritasuna... Goiz guztia han. Elkarrizketa, test psikoteknikoa, 200 galdera...

Pozik irten nintzen. Alferrik.

Joan aurretik, zuzendari administrari berria lehendik aukeratuta zegoela entzun nuen. Ez nuen guztiz sinistuko, bestela ez nintzen joango.

Zertarako guzti hau? Zertarako goiz guztia galdu? Zertarako dirua gastatu? Nerbioak. Zertarako?

Zenbat joan ote ginen? Zenbat balio ote du *giza baliabideen arloko aholkularitza konpainia independente* horren hautatze lanak kontratasteak?

Zergatik? Zertarako?

Tristura, amorrua. Erabilia sentitu naiz.

E.S. ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



**Irisgarritasun arazoak konpontzeko lanetan inbertitu behar da:** "Udalak diru asko inbertitu du azken urteotan herriko estetikan, eta horren ondorioz, herria oso polita dago. Nire ustez, baina, estetika ez da horren garrantzitsua, eta dirua irisgarritasun arazoak konpontzeko erabili beharko litzateket. Adibidez, Aita Agirre ikastetxe-ko arkupeetako lurak konpontzeko beharra dauka. Era berean, King-Kongeko autobus geltokira ume aulkiarekin iristea ez da erraza, eskailerak daudelako, eta hori konpondu egin beharko lukete".



**Maalako parkean zakarrontziak falta dira:** "Abuztu hasieran hiru zakarrontzi kendu zituzten Maalako parketik, eta falta handia igartzen dugu. Jende asko ibiltzen gara umeekin, eta zabor asko pilatzen zaigu: ogitartekoa, frutak, parde-lak, goxokiak... Zabor guztia etxera eraman behar izaten dugu". Ricardo Garate hirigintza arduradunak esandakoaren arabera, sanbartolomeetarako txosnak jartzeko kendu zituzten zakarrontziak eta jarlekuren bat, baina aste honetan bertan jarri dituzte berriz beren lekuan.



**Marra horiak dauden lekuan ezin da aparkatu:** "Jende askok ez ditu aparkatzeko lekuak errespetatzen, eta edozein tokitan uzten dute autoa. Pilar ikastetxe-ko sarreran, Urazandirako bidean, askotan egoten da auto bat marra horiaren gainean aparkatuta. Errebuelta itxia da, eta bi auto gurutzatzeko ez da lekua soberan egoten, beraz, ez dugu ulertzen zergatik aparkatzen duten hor. Errespeta ditzagun arauak, denon onerako da-eta!".



Zuen kezak, gaiterak edo txaloak bidaltzeko:  
[baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com) 943 744 112

## Matrikulazio epea zabalik urriaren 1etik 10era

Elgoibarko Haurreskola  
943 742 141

Haurreskolak

[www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net)



## ‘Elgoibar.klikbat’ egitasmoa jarri du martxan Udalak, ostalaritza eta merkataritza sektoreak sustatzeko

Urriaren 7tik aurrera, eskaintza bereziak egongo dira ikusgai *elgoibar.klikbat.com* atarian

**E**lgoibarko ostalaritza eta merkataritza bultzatzeko asmoarekin sortu eta finantzatu du Udalak <http://elgoibar.klikbat.com> plataforma digitala. Herriko merkatariek eta ostalariek dituzten eskaintza bereziak herritarrengana heltzeko aukera ematen duen erakusleho birtuala izango da, eta urriaren 7tik aurrera egongo da ikusgai. Eskaintzak ikusteko webgunean alta eman beharko dute herritarrek, eta une horretatik edozein produktu edo zerbitzu erosteko aukera izango dute. Erosketaren kodea jasoko dute erabiltzaileek, eta 48 orduko epea izango du jasotzera dendara joateko. Webgunean

izena ematen duten lehen ehun lagunen artean 100 euroko bono bat zozketatuko dute.

Dagoeneko 21 dendari eta profesional egin dute bat ekimenarekin eta beste zortzik batzeko edo informazioa jasotzeko interesa erakutsi dute. Interesa daukaten dendari, ostalari eta profesionalak webgune honetan parte hartzeko aukera daukate oraindik; Elgoibarko Udalera deitu eta Miriam Monterorekin harremanetan jarritz (943 741 050).

Bihar, hil bukaerako ferian emango dute ezagutzera egitasmoa. Irrien Lagunak etorriko dira globoak eta informazioa



banatzera, eta dendetan ere iragarriko dute webgunea.

### Bizikleten bigarren eskuko merkatua, Mugikortasun Astean

Bizikletaren erabilera eta oinezkoen mugikortasuna sustatzeko, Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu du Udalak hirugarren urtez. Urriaren 16tik 19ra bitartean izango da, eta antolatutako ekintzen artean, bizikleten bigarren eskuko merkatua egingo dute. Hor-taz, euren bizikletak eta era guztietako irristailu eta patineteak saltzeko edo trukatzeko aukera emango diete herritarrei. Bigarren eskuko merkatu horretan parte hartu nahi dutenek urriaren 11rako eman beharko dute izena, *miriam@elgoibar.net* helbidean edo 943 741 050 telefonoan, saldu edo trukatu nahi duten artikulua edo artikulua zehaztuta. Bizikleten bigarren eskuko merkatua urriaren 19an egingo da Lekueder parkean, 10:00etatik 14:00etara, eta parte hartzen duten herritarren artean bi bizikleta zozketatuko dituzte. Era berean, Gobike dendako Iban Gonzalezek azokara eramaten dizkioten bizikletak aztertu eta puntuari jarriko ditu, doan. Iban Gonzalez berak, ohiko bizikleta batetik abiatuta bizikleta elektriko bat nola egin daitekeen erakutsiko du han, 13:00etan. Horrez gain, Emugiko bizikleta eta ibilgailu elektrikoak probatzeko aukera izango dute 18 urtetik gorakoek.



Artxiboko irudia

### Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna bihar, azken zapatuko ferian

Iraileko azken zapatuko feria egingo dute bihar. Goizean goizetik Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da, eta 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarrako kideek eginiko pintxoak dastatu ahal izango dira, Kalebarren plazan. *Pa amb tomaquet* urdaiazpikoarekin eta txorizo egosi pintxoak salduko dituzte, euro batean. Aita Agirre plazan ganadu erakusketa egingo dute, eta eguerditik aurrera, Kale Kantariet alaituko dute giroa. 12:00etan, bestalde, talo tailerra eskainiko du Maitane Beristain Lasturko aterpetxe-ko arduradunak. Taloa egiten ikasteaz gain, txorizo edo txokolaterekin jateko aukera izango dute parte-hartzaileek.

## Jardunaldia **Energia burujabetza**

Okil Beltzak taldeak energia burujabetzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu biharko. Jardunaldi irekia da, doakoa eta interesa duen edozein herritarrek dauka parte hartzeko aukera. Elgoibarko musika eskolako auditorioan izango da, 9:00etatik 14:30era. Antolatzailleek energiarekin lotura duten gai desberdinak sartu dituzte egitarauan, eta hitzaldi arinak izango direla aurreratu dute. Hizlari bakoitzak “modu erraz eta laburrean” azalduko du bere gaia, jardunaldia arinagoa egiteko. Aukeratutako gaien artean, energia kooperatibak, legedia, energia berriztagarriak, efizientzia, mugak, etorkizunerako ikuspegia eta Elgoibarren bertan martxan dauden proiektuak azalduko dituzte, besteak beste. Horrez gain, energia aurrezteko bideak ere azalduko dituzte. 13:00etan atseden txiki bat izango da, eta azken orduan taldekako lan-dinamikak egingo dituzte.

Jardunaldiaren helburu nagusia energia burujabetzaren beharra azaltzea da, eta, horri lotuta, etorkizunerako dauden aukerak aztertuko dituzte. Era berean, gaiarekiko interesa dutenak elkar-ezagutzeko ere baliatuko dute jardunaldia, aurrera begira lan dinamika berriak martzen jartzeko.

## Irudia **Auto bat erre da**



Auto batek su hartu zuen atzo goizean, Bernardo Ezenarro kalean. Gidaria onik atera zen auto barrutik, eta ez zen zauriturik egon. Badaezpada inguruko komertzioak itxi egin zituzten, autoak eztanda egiteko arriskua zegoelako eta ke asko eragin zuelako. Udaltzainak hasi ziren sua itzaltzen, baina suhiltzailleek amaitu zuten lana. Sutearen uneko bideoa ikusgai duzue [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian.

## Lekua **Pilar ikastetxea**

Urrian hasiko ditu Udalak Pilar Ikastetxeko eraikina botatzeko lanak. Amiantoa agertu da ikastetxeko uralitan, eta Ingurumen Sailaren baimenaren zain daude lanei ekiteko. Pare bat asteko epean lanari hasteko moduan egongo direla uste dute Udaleko arduradunek. Obra horrek 157.188 euroko aurrekontua izango du, eta Murgil enpresak burutuko du. Lanak hasten direnetik, bi hilabeteko epean amaituko dituzte eraiste lanak, eta Ricardo Garate hirigintza arduradunak esandakoaren arabera, lan horrek ez du trafikoa “arazo handirik” eragingo. Pilar Ikastetxeko guraso taldeak Udalarri eman zion ikastetxea dagoen lursaila, adinekoentzako zentro bat egiteko. Foru Aldundiak begi onez ikusi zuen proiektua, baina krisiaren eraginez, adinekoen zentroa egiteko proiektua atzeratu egin da. Bien bitartean, beraz, aparkalekuak egiteko erabiliko dute gunehori.

## Altzariak berritu eta birziklatzeko ikastaroak

Eskuz Arte Eskolak altzariak berritu eta birziklatzeko ikastaroa hasiko du urriaren 1ean. Martitzen eta eguenetan eskainiko dituzte eskolak, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak ondorengo telefonoetara deitu dezakete: 666 679 248 (Asun), 678 840 451 (Merche) edo 615 764 337 (Nieves).

## Udal euskaltegiaren izena emateko epea zabalik

Debabe Udal Euskaltegiak hasi du aurtengo ikasturtea, eta herritarrei gogorarazi nahi die oraindik badagoela ikastaroetara izena emateko aukera. Interesatuak 943 742 731 telefonora deitu dezakete.

## Mendaroko Giza Probakoaren errifaren zozketa

Mendaroko Giza Proba taldeak egin du errifaren zozketa, eta 422 zerbakiarekin Ane Salegi izan da irabazlea. Landa jatetxean bi lagunentzako jatordua jaso du saritzat.



## San Antolin jaietako zozketak baditu saridunak

Agertu dira San Antolin jaietako errifaren saridunak. lagoba Alkortak irabazi du Kanariar Uharteetara bi lagunentzako bidaia, eta janariz eta edariz beteriko karretila Mallabi alde-  
ra joan da.



# AMETSA EGI BIHURTUTA



*Sotero Manzidor Boiseko aireportuan Luisa Pagoaga umetako laguna besarkatzen. Atzean, Florentina Txurruka.*

**Inoiz ez da berandu. Ez behintzat aspaldiko lagunekin elkartzeko bada. Sotero Manzidorrek (Berriatua, 1927) 86 urte beteko ditu azaroaren 28an, eta abuztuan, Boisen (Idaho, AEB) izan da, umetako lagunak bisitatzen. Eskola garaiko lagunekin elkartuta, urteen joanak lausotutako memoria freskatzeko eta elkarri esan gabeko kontuak kontatzeko aukera izan dute batzuek zein besteek. “Berezia” izan da, 26 urterekin egin gabe utzi zuen bidaia egin duelako, eta oraingoan, gainera, kapritxo, eta ez sasoi hartan moduan, beharrak bultzatuta.**

**Ainara Argoitia**

**S**igma enpresan lanean hasteko eskaintza bategatik bizi da gaur Elgoibarren Sotero Manzidor. Lan eskaintza hargatik ez balitz, Ameriketan legoke gaur beharbada. 27 urte zituen lehengusuak Sigman peoi lanetarako lagun bat behar zute-la esanez deitu zionean. “Hura poza! Salbazioa izan zen. 1003. zenbakia eman zidaten tailerrean”, dio. 1954. urtea zen, lanerako sasoirik onenean zegoen, baina lanik ez zegoen inguruetan, eta beltz ikusten zuen etorkizuna. “Baserrietan morroirik ere ez zuten behar sasoi hartan, etxe guztietan sobera zegoelako jendea. Etxean hamar-hamaika seme-alaba izaten ziren, eta bakarria nahikoa izaten zen. Aurretik ere,

gure ume denboran, elkar hil artekoa zegoen gosea hemen. Nik uste dut gerra ere horrek ekarri zuela”, zehaztu du. Ezin zuen egoera hura jasan. “Erromeriarako dirua ere amari eskatu behar izaten nion, eta bihotzeko mina ere ematen zidan”, aitortu du. Ogerlekoa ematen zion amak; “dirutza” garai hartarako, baina orduan ere, gauza gutxi ziren debalde. Erromerian dantza egiteko, esaterako, ordaindu egin behar izaten zuten gizonezkoek: bina pezeta. Eta jakina, lanerako ez ezik dantzarako ere sasoirik onenean zeuden. “Bi jaitan joaten zitzaidan amak emandako dirua, eta hori tabernarik zapaldu barik”. Halaxe, beti eskean ibiltzeaz aspertuta, Ameriketara begira jarri zen Sotero.



Sotero Manzisidor, haren alaba Sonia, eta Luisa Pagoaga 'euskaldun izateaz harro' dioen harriari helduta.

Berriatua eta inguruetatik asko ziren ordurako Ameriketara joandakoak, eta bide hori hartzea erabaki zuen. "Sasoi hartan dirua egiten zuen jendeak Ameriketara. Ez lan egin barik, jakina; Han lehenengo urteetan pasatakoak pasata, lagun berak zera esan zidan behin: Madrilan balego oinez bueltatuko litzatekeela etxera. Han ere kostatuko zen dirua aurreratzea, bai, baina dolarrak 177 pezeta balio zituen, eta gu base-rikoak izanda, lanean zaildutakoak ginen". Sigman hasi aurretik, mendian ere jardun zen lanean anaia Justorekin, idiekin arbola enborrak ateratzen. "Diru pixkat" egin zuten Arnoateko pagadian ebagitako pago arbolak idiekin Arnoateko atarira ekartzen, gero han kamioietan karga zituzten. Etxe ondoan ere jardun ziren lanean, arbolak sartzen, baina zer diren gauzak! "Iritsi ziren lehenengo *gemeziak* [GMC kamioiak], eta akabogure lanak. Eta orduan ez zegoen gaurko langabezi saririk eta ezer ez. Goseak hil, edo mugitu egin behar!". Eta "ahal zuenak" Ameriketarako bidea hartzen zuen.

## Ameriketara bidaia

Berriatuko Kaltzakorta baserrian jaioa da Sotero, Mutrikuko mugamugan, eta Mixkiamendi zuen auzo gertuena. Hangoxe laguna zuen Inazio Pagoaga, Aranzamendi baserriko semea, ordurako Ameriketara artzain zegoena. "Inaziori karta idazteko asmotan nenbilen Sigman lanean hasteko deitu zidatenean. Izan ere, ordurako Ameriketara ere aspertuta zeuden jabe bako kristauak hartzeaz eta hara joan nahi bazen, han bizi zen norbaiten gomendiozko karta behar zen". Ez zuen beharrik izan, baina.



Urte asko ziren Ameriketara joan zitzaizkion auzotarren berririk ez zuela. 60 bat urte bai, esate baterako, Luisarekin (Inazioren arreba eta erromeria-laguna) egon gabe, 17 bat urte zituenean joan zelako hura Ameriketara. Duela hiru bat urte jarri ziren harremanetan; "ez kostatzen barik". Teresa Txurrukak, Boisen bizi den Florentina Txurruka ondarrutarraren ahizpak, eman zion lehenengo pista. "Telefonoa eman zidan, baina zenbakia oker zegoen, eta zuhaitz generalogikorako informazio bila zebilela alabak Internetez ezagututako Manzisidor baten emazteak jarri gintuen gero harremanetan. Telefonoz deitu nien, eta ordutik, mantendu dugu harremana. Handia da teknologia!".

Hitz egiten zuten aldiro egiten ziren Soterok Euskal Herrira etortzeko gonbita lagunei, baina ez ziren animatzen. "Zuek ez bazatozte neu joango naiz", bota zien sorterrira etortzeko adorerik bildu ezin zutelarik ikusita. Esan eta egin. Sonia eta Juan Karlos alaba eta seme gazteak lagun hartuta (bederatzi senide dira), abuztuaren 19an abiatu zen Boiserantz, sanbartolomeetako zapi gorriak eta Markinako kokoteak maletan hartuta. "Laguntzaileak izan ditudalako animatu naiz, osterantzean ezin naiz ni haraino joan. Seme-alabek zuzendu dute dena, eta ni ume txiki bat moduan eraman naute". Bigarren aldia zuen hegazkina hartzen zuela [Lehenengoz Ingalaterran bizi zuen alaba ikusteko hartu zuen]. "Hamabost ordu asko dira airean joateko, eta kokoa barruan eraman nuen. Alemaniatik Ameriketara, hementxe jarrita moduan egin nuen, trankil, baina bide motzatarako hegazkinetan igartzen da mugimendua. Lainotzan sartutakoan-eta, izaten da barruari buelta emateko moduko beherakadarik", dio. 27 urte zituenean hara arte iristeko egin beharko zuen bidaiarekin alderatuta, baina, orain egin duena hutsaren hurrengoa izan dela dio. "Orduan ez zegoen hegazkinik, gerra hegazkinaz aparte, eta itsasoz egin beharko nuen bidaia. Batek daki zenbat egun beharko nituen". [Pentsatzen jarri da]. "Hilabete bai", itsasoan bilin-bolonka.



Itziar Totorika, Florentina Txurrukaren alaba, eta Sotero, golflean.

**“Sasoi hartan dirua egiten zuen jendeak Ameriketara, baina ez lanik egin barik”**

Behin Ameriketara “erregeen pare” ibili dira. Astebeteko egonaldia egin dute han, Luisa Pagoaga mutrikurraren etxean, eta hango parajez liluratuta itzuli da Sotero Euskal Herrira. “Azkenik bako lur-sailak. Dena lau-lau. Begiratzen duzu alde batera eta han bertan dagoela begitantzen zaizun etxera oinez abiatu, eta ezin ailegatu!. Laua lapurra da gero!. Baina hango paraje eder haiek... Gu ohituta eta aspertuta gaudela aldapan lan egitera, eta hango itzela da”, bota du. Hemengoarekin alderatuta, han “erraz” bizi direla dio. “20.000 txahal-buruko arrantxoak ere ikusi genuen, eta kristaurik ez bueltan lanean! Gari sail demasak ere ikusi ditugu, eta lanean bi lagun asko jota! Han makinekin egiten dute dena. Bada bazterretan adelantoa! Ez dago hemengo konturik Ameriketara. Gutxi eginda asko lortzen dute han. Salduko balute, gainera, gehiago ere hartuko lukete jeneroa. Atera kontua 20.000 txahalek zenbat esne eman dezaketean egunean. 100.000 litro bai lehenengo purialdian behintzat”.

Albuma zabaldu du, esandakoa argazkiekin ilustratzeko, eta han ageri da bera, kapela handia jantzita, “amerikano konpletoa”. “Hango errepide zabalak-eta! Makinekin bidea egin, harria bota, eta aurrera”. Teknogiaren eta aurrerapenen alde onaz eta txarrez hasi da berbetan bat-batean. “Langabezia esaten dute? Ezin da kristau denentzako lanik egon hemen. Hori adelantok ekarri du. Ordubeteen 43 auto egiten dituztela ikusi nuen telebistan. Jendearentzako lana? Neuk ere asmatuko nuke derrepente. Eman aitzurrak eta igitaiak jendeari eta jarri denak lanean gure ume denboran moduan, makinarik gabe. Hor denentzako lana eta denentzako gosea”. Ameriketako distantzia luzeek eta errepide zabalek, eta hango “lasaitasunak” harritu dute gehien. Baita hango andrazko handiek ere.

*Sotero Manzidor, arrantxo atarian. Ameriketako lur sail zabalekin liluratuta itzuli da Euskal Herrira Sotero.*

## “20.000 txahal-buruko arrantxoak ere ikusi genuen, eta kristaurik ez bueltan”

Ameriketara “lasai” bizi direla dio. Gustatu zaio hango patxada. Jende gehiegia ez dela ona dio, eta are gutxiago adin batetik aurrera. “Hemen *eup* eta *eup*, kalean aurrera ere ezin izaten da pasatu batzuetan. Han euren lekuan bizi dira, inork trabarik egin gabe. Lasategia dela? Bai zure moduan kalean hazitako gazteentzat”, bota dio kazetariari, eta kolpe dio berriro albumari. Errantxoko atarian ikusi dugu, baita mahai baten bueltan karta-jokoan ere, lepoan sanbartolomeetako zapi gorria duela, eta ikusi dugu golfean ere. “Moldatu naiz golfean. Jaurti nuen pilota arin hori gogor, eta zuloa baino zatia gorago jausi zen, baina itxuraz aldapa egon han, eta astiro-astiro urreratu zen zulora. Han hasi zirenenak txaloka, eta horrekin konforme ni”, bota du irribarrez.

### Euskal kultura

Tartean “putzu handia” egon arren, Euskal Herrian bezala sentiarazi dute Ameriketara Sotero. “Ikustekoa da zelan zaintzen duten hemendik doana”. Ikurrinak, etxeetako apaingarriak, hangoen euskara garbia... “Guk baino gehiago baloratzen dute han euskal kultura eta euskal jendea”, dio hunkituta. Harritu ere egin dute, hein batean. “Gazte jogan ziren hara, baina bakoitzak bereari eusten dio han. Orain ere mutrikuarrez egin didate neri berba lagunak, garbi-garbi”. Boiseko Euskal Etxe atariko argazkiak atera ditu mahai gainera. Euskal etxetik irten eta eskubitara, lurtean, hamaika euskal abizen irakur daitezke baldosetan taillatuta. Beste aldean, euskal kantuen letra eta partiturak ere ikusi daitezke. Euskaldun izateaz harro bizi dira diasporan, Soteroren esanetan. Astebeteko egonaldia egin dute han berak eta seme-alabetako bik, eta

jakina, motz egin zaie hangoek erakutsi asmo zieten guztia ikusteko, baina pozik itzuli da gizona, umetako lagunak ikusita. “Eurek ere gustura gelditu dira. Ume denbora dena egin genuen elkarrekin, batean haserretu eta bestean adiskidetu, eta horiek dira sasoirik ederrenak, sekula ahazten ez direnak”, dio.

Ameriketara itzultzeko asmorik ba ote duen galdetuta, ezetz dio. “Ikusi ditut lagunak, eta lasaitu naiz”. Ezetz borobilegia ez ote den galdetu dio kazetariari, eta tentatu du 2015ean Boisen ospatuko duten Jaialdia aipatuta. Bost urtean behin diasporako euskaldunek ospatzen duten jaia da Jaialdia, eta Ameriketako bazter guztietako euskaldunak batu ohi dira Boisen. “Horrenbeste jende batzen baldin bada hor, norberak ikusi nahi dituenak ikusi barik gelditzeko arriskua dago! Ez, ez. Nik ikusi ditut lagunak, eta orain eurek etorri behar dute hona, euren herrira”, gaineratu du.



## Erretratu zaharra



1936

Aste honetako erretratu zaharra Felix Etxeberriak ekarri du BARRENERA. 1936ko argazkia da, eta Sallobenten aterata dago. Egun hartan bi elgoibartar omendu zituztela azaldu du Etxeberriak, baina ez da gogoratzen zeintzuk izan ziren omenduak. Erretratuan azaltzen diren batzuen izenak ez ditu gogoratzen, baina uste du irakurleok ezagutuko dituzuela. Argazkiko protagonista gehienak hilda daude, baina identifikatu gabeen artean baliteke norbait bizirik egotea. **Goian:** Jose Gurrutxaga, Altuna, ezezaguna, Felix Izagirre, Armendia, ezezaguna, Migel Arriola. **Bigarren ilaran:** Txomin Gabilondo, Azpiazu, Astiazaran (Usurbil), Ajuria, Ramon Elorza, ezezaguna, Bereziartua, Justo Arriola, ezezaguna, ezezaguna. **Hirugarren ilaran:** Modesto Arriola, Geronimo Aranberri, Juan Txurruka, ezezaguna, Juan Jose Mendikute, Canuto Gabilondo, Beristain, Murua. Ziriako Altuna, ezezaguna, Larreategi, Epelde, Valerio Arriola. **Laugarren ilaran:** Ramona Badiola, Virginia Gurrutxaga, Romualdo Andonegi, ezezaguna, Saturnino Campos (apaiza), ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Manolo Gurrutxaga, Juanito Gurrutxaga, Inazio Etxeberria, Felix Etxeberria, Inazio Zabala. **Bosgarren ilaran:** Ezezaguna, Casmiro Zabala, German Uriguen, Silvino Gabilondo, Felix Gastezi, Patxi Osoro (Mutriku), Leoncio Gabilondo, Gregorio Izagirre, ezezaguna. **Seigarren ilaran:** Angel Arriola, Antonio Astigarraga, ezezaguna.

## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENEen argitaratzeko  
erretratu zaharrak baldin badituzu,  
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.  
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)



# EDUARDO PORTILLA

ON:GIZ ELKARTEKOA



**On:Giz elkarteko kide da Eduardo Portilla, gizon eta emakumeen rola aldatzeko lanean diharduen elkartekoa. Gizonekin egiten dute lan bereziki, aitatasuna baloratu eta sentimenduak adieraztearen eta zaintza partekatua onurak ikus ditzaten. Gaur hasi eta beste hiru ostiraletan Elgoibarren gizonzkoentzako tailerra zuzenduko du. Interesatuak [ezberdinentroa@gmail.com](mailto:ezberdinentroa@gmail.com) helbidera idatzita edota 945 233 462 telefono zenbakira deituta eman dezakete izena.**

**“Aitatasuna bizitzearen onurak deskubritu behar dituzte aitek”**

**‘Benetako aitatasuna zer den ez dakiten aita asko daude’. Halaxe irakurri dizugu. Zer esan nahi duzu?**

Seme-alabaren bat duena da aita, dela seme-alaba biologikoa, harrean hartutakoa, adoptatua edo dena delakoa. Aitatasun ereduak, berriz, asko dira, baina guk erantzukizuneko aitatasunari esaten diogu benetakoa. Gaur egun, egia esan, aitatasuna ez dago oso modan, nahiz eta gero eta aita gehiago inplikatzaren diren haurren zaintzan. Hala ere, amari esleitzen zaizkion hainbat ardurak ukatzen zaizkie oraindik ere aitei. Duela hamarkada batzuk, adibidez, aitatasuna etxera ogia eramatearekin lotzen zuten batez ere, edo etxean ordena jartzearekin bestela: autoritatearekin. Horretarako ziren aitak. Oraindik ere aita askok horretan dihardute, mila aitzakia jarrita. Aita batzuek uste dute larunbatean seme-alaba futbol partidara eramatera mugatzen dela euren egitekoa, baina ez da hori. Aita horiei esan nahi dieguna da deskubritu behar dutela benetako aitatasuna bizitzeak zer onura ekarriko dien euren, euren umeei eta baita familia egiturari berari ere.

**Jasotako heziketak ere baldintzatzen du aita askoren jokabidea. ‘Gizonek ez dute negarrik egiten’ kantua datorkit burura. Zer eragin dute halakoek aita direnengan edo izateko asmoa dutenengan?**

Trabak askotarikoak dira. Heziketa aipatu duzu, baina legea bera ere traba da batzuetan. Baldintzapen asko daude. Amatasun baimena oraindik hamasei astekoa da, eta aitatasun baimena bi astekoa. Gogorra ekarri behar dugu 2011ko urtarrilean indarrean jartzekoa zela aitatasun baimena lau astekoa izan behar zuela zioen legea, baina 2010eko urri aldera Gobernuak esan zuen dirurik ez zegoela eta baimenak bi astekoa izaten jarraituko zuela. Islandian eta Europa iparraldeko beste zenbait herrialdetan baimenak berdinak dira, izan ama-arentzat edo aitarentzat, eta hemen ere parekatuz joan beharko genuke. Amarena luzatu eta aitarena horrekin parekatu. Hori da bidea, amarena bakarrik luzatuta sekula ez dugulako lortuko benetako parekidetasuna. Zer ekarriko luke horrek? Batetik, emakumeen lan-merkaturatzea are gehiago zailtzea, eta bestetik, gizonen euren seme-alaben bizitzako unerik garrantzitsuenean parte hartzea eragozteak. Ez dugulako ahaztu behar umeak lehenengo bost urteetan ikasten dituela bizitzako ikasgairik garrantzitsuenak.

Sentimenduen adierazpenaren harira esan duzuna ere oso garrantzitsua da. Sentimenduak eta emozioak adierazteko gaitasuna badaukagu guk ere, baina, jakina, hori ere landu egin behar da. Ez pentsa, ordea, inguruak laguntzen duenik. Ikastolako atarian egunero ikusten dugu hori. 5-6 urteko seme-alabei lasai asko ematen diegu muxu, baina badirudi adin horretatik aurrerako mutilei ezin zaiela muxurik eman. Beste adibide bat jarriko dizut, ikastolako patioan entzundakoa. Jaialdia egin zuten egunean aita bati zera entzun nion: ‘Zuk ez duzu dantzarik egingo, ezta, Mikel? Hori nesken kontua da’. Era horretako komentarioek lotu egiten gaituzte. Gizonak erakutsi behar du sendoa dela eta ezin du sekula ahuldaderik adierazi. Pentsa zenbat ari garen galtzen. Eta zer gertatzen da gero? Bada, ahuldadea erakutsi behar dugunean indarkeria erabiltzera jotzen dugula. Ez dut esango genero indarkeria kasu guztien atzean hori dagoenik, baina bai zerikusia duela.

‘Amari esleitzen zaizkion hainbat ardurak ukatzen zaizkie aitei’, esan duzu. Inplikazio kontua ere bada. Horren harira, sarri esan zaigu trebeagoak garelako inplikatzaren gaila gehiago amok seme-alabaren zaintzan. Ez al dago hor gizonen utzikeria ere?

## “Gizonok ez gara ahalguztidun, eta presio hori askatu behar dugu”

Baldintzapen soziala ere badago horren atzean. Aita askok esaten digute euren seme-alaba jaio arte ez zutela ume bakar bat besoetan hartu, eta horrek, noski, urduritasuna sortzen du. Familian umeren bat zaindu beharra badago, gizona koei ez digute galdetu ere egiten laguntzeko prest gauden. Eta jakiteko, saiatu egin behar da. Baldintzapen sozialak izugarritzko eragina dauka. Desberdin sentiarazten gaituzte umea zaintzeko eszedentzia edo lanaldi murrizketa eskatzen dugunean ere. Hala ere, bestetik ere badago, bai; *paso* egite hori badago. Umea jaio ostean aitak jarraitzen du larunbatetan futbolera joaten eta badu lagunekin kafea lasai hartzeko tarterik ere. Zerbait utzi beharko du, bai, baina oro har jarraitzen du asebetetzen dituen gauzak egiten. Ama askok, aldiz, ezin izaten dute umea jaio aurretik egiten zituzten jarduerak egin, eta egiten badituzte, umeekin batera egin behar izaten dituzte. Emakume asko ikusten dira lagunekin kafea hartzen, baina ez daude bakarrik. Lagunekin daude, eta euren eta besteen seme-alabekin. Eta denok dakigu ez dela berdina lagunekin kafea hartzea edota umeak inguruan bueltaka direla kafea hartzea. Amaren aisialdia familia aisialdia bihurtzen da sarri.

### **Ikusten duzu hori aldatzeko jarrerarik?**

Egiteko asko dago oraindik, baina Gasteizen, adibidez, bost gizon talde daude, eta guztira 75 gizon elkartzen gara. Jakina, denok dauzkagu oraindik praktika matxistak, baina bai guk eta baita gure emazteek ere. Badugu horren kontzientzia, baina, eta saiatzen gara hori iraultzen. Hori bai, nik uste dut emakumeok ere exijitu behar duzuela zeuen espazioa. Bizitza pribatuaz gain, bizitza publikoa egiteko eskubide osoa duzue eta ikusten ez duenari ikusararazi egin behar diozue. Dena den, umea jaio osteko aldi hori ez da erraza bikotearentzat, bikotearen rola bera ere aldatzen delako. Aitak eta amak eurentzako denbora behar duten moduan, denbora behar du bikoteak berak ere, eta horretarako laguntza behar du. Askok banatzen dira hori eraman ezin dutelako.

**Gizonei entzuna da emakumeok haurdunalditik beretik bizi dugula amatasuna eta ondorioz eurek baino prestatuago gaudela datorrene-rako. Zein izan beharko luke aita batek haurdunaldian bete beharreko papera?**

Alde handia dago, bai, baina horren aurrean bi aukera ditugu guk: zain egon edo haurdunaldia bizi. Umearekiko harremana hor hasten da. Bikotekidea zaindu, egin behar diren gauzez kezkatu... Erditu aurreko ikastaroak ere zorritzarrez amentzako bakarrik dira osasun zentro publiko gehienetan, eta kasurik onenetan, egunen batzutan joateko aukera ematen digute aitok, baina legeak ez digu horretarako aukerarik ematen. Haurdunaldian eta baita erditze ondorengo egunetan ere aitaren papera oso garrantzitsua da. Jakin behar du ama-umeen beharrak asetzen, jakin behar du bisitak mugatzen, bereziki edoskitze aldietan...

**Emagin bati entzuna da ama zaintzea dela aitaren eginbehar nagusia haurdunaldian. Aitarik ez zegoen talde hartan, jakina.**

Bada, baina aitak ere behar du protagonista sentitzea eta bere poza eta kezkak norbaitekin konpartitzea. Horregatik interesgarria litzateke jaioberrien aiten taldeak sortzea.

**Haurra jaio ostean, aita asko ikusten ditugu familian lekua topatu nahian, sarri amonek, izebek edota etxeko edozein emakumezkoak au-**

**rea hartzen dietelako. Zer diozu?**

Egia da. Gutxietsita ere sentitzen dira aita asko, ikusten dutelako edozein emakume esan diezaieketela zerbait, eta askotan, gainera, gutxiespen tonuan. Ulergarria izan daiteke hori, baina ez da inondik inora onargarria. Laguntzeko orduan moduak eta moduak daude. Ez gaitzatela gutxiago sentiarazi, ez gaitzatela ordezeko sentiarazi, aulkian bere txanda noiz iritsi zain dagoen jokalaria bezala. Amarekin eta haurrarekin kaletik goazenean ere gertatzen da. Norbaitek gelditzen gaitu kalean, eta han hasten da amari galdezka: ‘Ondo jaten al du? Lorik egiten dizu?’ eta zu, hantxe, ez bazeunde bezala.

**Arduren banaketak dituen onurez ohartarazi nahi dituzue gizonak. Azalduiguzu hori.**

Euren ardura etxera dirua eramatea zela uste zuten gizon asko galdu-ta daude orain, langabezia gelditu direlako. Askok ez dira eroso sentitzen umeak zaintzen, eta sufritu egiten dute; ez dakite disfrutatzen, eta hori ez dagoela norbere umei entzun eta haiekin jolastea baino gauza ederragorik. Seme-alaben bidez lagun berriak egiten ditugu, ikastolako guraso elkartean parte hartuz umeen heziketa zuzenean parte hartu ahal dugu, eta era horretan, geure umeak hobeto ezagutzeko aukera daukagu. Aita eta seme-alaben arteko lotura estuagoa egiten da hala. Zer gertatzen zaigu gutariko askori? Amarekin dugun harremana askoz sakonagoa dela aitarekin duguna baino. Minez gaudenean edo sentimenduekin lotutako zerbait kontatu nahi dugunean amarengana jotzen dugu, eta pentsa zenbat galtzen duten gure aitek. Gurekin galdu dute, eta gure seme-alabekin ere bai, guk geuk ere amonarengana joko dugulako haurra norekin utzi ez dakigunean. Psikologoek esaten dute: 0-5 urte bitartean bizi dugunak %20an baldintzatzen duela gure bizitza. Bada, tarte horretan amarekin igarotzen badugu denboraren %80 gerora ere amarekin izango dugu harreman estuagoa.

**Zaintza partekatua gaia ere hor dago. Nola baloratzen duzue gai hori gizon taldeetan?**

Gaia zaila da. Badaude aita batzuk haurren zaintzan oso-osoan inplikatu direnak eta gero bikotea banandu denean, justizia matxista honek amari eman diola haurraren tutoretza. Baina bestelakoak ere asko dira. Zenbat lan ordu eta zenbat aukera galtzen duzue emakumeok haurren zaintza oso-osoan zuen gain hartzeagatik?. Zer gertatzen da bikoteak banantzea erabakitzen badu? Nola egiten du emakumeak hamar urtez haurrak zaintzen eta gizonaren kantzontziloak garbitzen pasa ostean, 45 urterekin lan merkatuan sartu nahi duenean?

**Nola animatuko zenituzke gizonak tailerrera?**

Datozela esango nieke. Berdin aita direnei, aita izango direnei edota aita ez izatea erabakita dutenei ere, haurrik izan ez arren tokatuko zaielako haiei ere noizbait norbait zaindu beharra izatea. Emozioen eta sentimenduen mundua gurea ere badela ikusiko dugu, eta ez dela ezer pasatzen ez dakigula esateagatik. Gu ere ez gara ahalguztidunak eta presio horiek askatu behar ditugu. Hori lortzen badugu, askoz harreman osasuntsuagoak izango ditugu.

## Uztailean eta abuztuan

### JAIOTAKOAK



**Eki Ulibarri Mateo**  
Abuztuak 6  
Xabi eta Ainhoa



**Jon Caro Epelde**  
Uztailak 17  
Eugenio eta Amaia




**Haizea Guruzeta Reyes**  
Abuztuak 20  
Ibon eta Feli



**Sara Mekolalde Pampin**  
Uztailak 22  
David eta Laura



**Luken Arriaga Mujika**  
Uztailak 28  
Abel eta Eider



**Miriam Afkir Ezzahraoui**  
Uztailak 1  
Abderrahim eta Anissa

**Ane Plaza Derteano**  
Uztailak 12  
Pello eta Arantzazu

**Garazi De la Horra Ibañez**  
Uztailak 16  
Eneko eta Maitane

**Valentina Diana Tocu**  
Uztailak 19  
Beniamin eta Lenuta

**Hamza Belhaji**  
**El Boustiani** Uztailak 21  
Mohamed eta Nissrine

**Joel Francisco Franco**  
**Barrul** Uztailak 21  
Francisco eta Isabel

**Miren Aizpitarte**  
**Rodriguez** Uztailak 26  
Jose Luis eta Maria Teresa

**Adei Maruri Galarraga**  
Uztailak 30  
Iban eta Ainhoa

**Julen Olabarrieta**  
**Aurrekoetxea** Abuztuak 5  
Asier eta Idoia

**Oihane**  
**Meabebasteretxea Sanz**  
Abuztuak 10  
Unai eta Nerea

**Joel Alba Sarmiento**  
Abuztuak 10  
Denis eta Patricia

**Yasmin Ouahjoudjou Vallejo**  
Abuztuak 5  
Chadli eta Laura

**Marc Vieira Ibañez**  
Abuztuak 17  
Muno Manuel eta Leticia

**Ander Rodriguez Arano**  
Abuztuak 21  
Alberto eta Lia

**Sondos Boulmani**  
**Laassouli** Abuztuak 22  
Hamid eta Imane

**Youssef Aarich**  
Abuztuak 28  
Abdeljalil eta Laila

**Imrane Ouarahou**  
Abuztuak 26  
Abdelmajid eta Naziha

**Naia Elizagirre Garaide**  
Uztailak 19  
Iban eta Nerea

**Nere Argarate Argoitia**  
Uztailak 18  
Gaizka eta Oihana

**Kenya Haizea Miranda**  
**Holmes** Uztailak 23  
Osny Enrique eta Vicenta  
Aracely

### HILDAKOAK

Inazio Egaña Lizundia • 85 urte • Uztailak 2  
Rosi Etxaniz Garagarza • 67 urte • Uztailak 3  
Maritxu Andion Errasti • 88 urte • Uztailak 7  
Ramona Zubizarreta Alkorta • 99 urte • Uztailak 17  
Lucio Maidagan Mayoz • 92 urte • Uztailak 21  
Pilar Argarate Juaristi • 89 urte • Uztailak 28  
Felix Lodoso Bergaretxe • 78 urte • Abuztuak 1  
Celestina Etxaniz Etxeberria • 93 urte • Abuztuak 4  
Inazio Ansola Bergaretxe • 92 urte • Abuztuak 5  
Roman Igartua Alonso • 74 urte • Abuztuak 11  
Jesusa Soraluze Leiaristi • 84 urte • Abuztuak 11  
Exaltacion Lobejon Criado • 85 urte • Abuztuak 12  
Josefa Epelde Arriola • 87 urte • Abuztuak 12  
Fernando Jurado Hermoso • 56 urte • Abuztuak 15  
Pako Igartua Alonso • 80 urte • Abuztuak 16  
Mari Tere Arriola Exposito • 89 urte • Abuztuak 28

## ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA  
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK**  
**TRASLADOAK**  
**KOROAK**

**NORBANAKOEI**  
eta  
**KONPAINIEI**  
zuzenduriko  
zerbitzuak

**Erietxe zentruetan**  
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

### EZKONDUTAKOAK

Mikel Leon eta Nerea Mendizabal • Uztailak 26

## 50 urteko ibilbidea jaso du Elgoibar Ikastolak '50 urte gelak bizipenez betetzen' liburuan

Ikastolarekin lotura izan duten hainbat lagunen bizipenetatik abiatuta osatu dute lana

**E**lgoibar Ikastolak 2012an bete zituen 50 urte, eta ibilbide hori baten duen liburua aurkeztu dute aste honetan. Ikastolako ordezkariak, liburuaren egileak eta babesleak izan ziren aurkezpen ekitaldian: Elgoibarko Udalak eta DanobatGroupek finantzatu dute liburua, eta Elgoibarko Izarrak izan du liburua egiteko ardura. Jasone Osorok idatzi ditu testuak eta Leire Rubio BARREN astekariko publizistak egin ditu diseinu lanak, Imanol Larrañaga dinamizatzaileak koordinatuta. Edurne Bilbao Ikastolako lehendakariak esan zuene Elgoibarko historian eskutik emanda joan diren bi elkarte direla Elgoibarko Izarra eta Elgoibar Ikastola, eta beraintzat garrantzitsua izan dela biak berriz elkarlanean aritzea. Ikastolako arduradunak "pozik" geratu dira liburuarekin: "Lanean jardun duen lan talde profesionalak ederki osatu du bere lana", adierazi zuen Bilbaok.

### Bizipenetan oinarrituta

Lagun askok hartu du parte liburuan, eta protagonisten bizipenetan oinarritu dute: ikastolako profesiona-



lak, ikasleak eta gurasoak, atzokoak eta gaurkoak dira protagonista, eta horiei eskerrak eman zizkieten, erakutsi duten inplikazioagatik.

Liburuari buzuko azalpen teknikoak, bestalde, Jabier Larrañaga Ikastolako zuzendariak eman zituen: "Bi aukera aztertu genituen. Batetik, Ikastolak 25 urte bete zituenean atera zuten liburuaren jarraipena egitea; hau da, azken 25 urteen kontakizuna. Bigarren aukeraren alde egin genuen, baina, 50 urteen kontakizuna egitearen alde, alegia. Alabaina, orain 25 urte argitaratutako liburu hura deskribatzailea bazen, bigarren honetan testigantzetan oinarritu gara". Hori dela-eta "irakurketa anitzetako" liburua dela nabarmendu zuen Larrañagak, irakurle bakoitzak gauza desberdinak topatzeko bidea ematen duelako. Era berean, Elgoibar Ikastolaren eta, oro har, Ikastolen mugimenduaren bilakaera nolako izan den ikasi nahi dutenentzat erreferen-

tziako liburua izango dela ere aipatu zuen.

Eta hori guztia, Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak jaso du. Liburuaren bihotza hiru zutaberen gainean eraikita dagoela azaldu zuen Osorok: historia da lehen zutabea. "Ondo kontatua egoteko istorio txikiz osatua behar du izan historiak, eta horretarako jende diferenteari, belaunaldi desberdinetakoari eman behar zaio hitza. Gero, puzzleetan egiten den moduan pieza txiki denak dagokien lekuan batu behar dira". Bigarren zutabea ikastolaren ekintzailtasun senari eskainia dagoela azaldu zuen Osorok, eta Ikastolak erabili dituen marketing estrategiari hirugarrena.

### Liburua salgai

*50 urte gelak bizipenez betetzen* jarraldi diote izenburua liburuari, eta nahi duenak erosteko aukera dauka, Pitxintxun edo Gorostizan, 10 euroan.



## Bihar ospatuko dute Soraluzen Topa Eguna, euskaltzaileen festa

Hara joateko deia egin die Elgoibarko Izarrak herritarrei

**E**uskaltzaileen jaia antolatu dute biharko Topaguneak eta euskara elkarteek. Soraluzen izango da, eta egun osoko egitaraua prestatu dute, euskaltzaileak batu eta elkar ezagutzeko. Elgoibarko Izarrak ere hartu du parte antolakuntzan, eta elgoibartarrak gonbidatu nahi dituzte festara. Elgoibartik joateko modu desberdinak egongo dira: autobusez, Morkaikokoekin oinez, kotxez... Eta eguna luzatu nahi duenarentzat, Soraluzen bertan lo egiteko lekua ere prestatu dute. Informazioa eskuratzeko 943 741 626 telefonora deitu daiteke.

### Egitarau zabala

Adin eta gustu guztietako jendearentzako egitaraua prestatu dute antolatzaileek. 11:00etan hasiko dira ekitaldiak, eta 12:00etan Jon Sarasuak bere azken liburua aurkeztuko du. Herri bazkaria egongo da ondoren, arratsaldean jola-



sak, ekitaldi nagusia eta iluntzean erromeria, Xero Xiete taldearekin. Gauean Kokein eta Gose taldeek eskainiko dute kontzertua.

## Musika elektronikoari buruzko hitzaldiak eta erakustaldia antolatu dituzte urrirako



Chris Rios eta B. Gutierrez elgoibartarrak musika elektronikoari buruzko bi hitzaldi eta erakustaldi bat eskainiko dituzte urrian. Gazteei musika elektronikoa egiteko dauden aukerak azaltzea da euren asmoa. Teknologia berriei esker, azken urteetan musikaren munduan ere aldaketak izan dira, eta aukera horiek azalduko dituzte. Instrumentuek eta ordenagailuak ematen dituzten aukerak azalduko dituzte, zuzeneko erakustaldi batean. Udalak emandako dirulaguntzari esker, jardunaldiak doan izango dira. Lehen erakustaldia urriaren 4an egingo dute, 18:00etan Gaztelekuan. Hitzaldiak, bestalde, hilaren 11n eta 18an eskainiko dituzte, Kultur Etxeko sotoan, 18:00etatik aurrera.

### San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastian

Gaur hasi eta domekara bitartean ospatuko dituzte San Migel jaiak Aiastian. Kanpai jotzearekin hasiko dira jaiak 19:00etan, eta gauean bertso afaria egingo dute, Julio Soto eta Peñagarikanorekin. Bihar artzain txakur txapelketa eta Haritz dantza taldearen erakustaldia izango dira ekitaldi nagusiak, eta domekan, korrika igotera eta idi demak egongo dira, besteak beste. Egitarau osoa agendan duzue ikusgai.

### Cuzo eta Za! taldeen kontzertuak, sotoan

Sotoko Hotsak egitasmoaren barruan, Cuzo eta Za! talde kataluniarren kontzertuak izango dira asteburuan, Kultur Etxeko sotoan. Malenkoniarako, jai-girorako edo ikerketa pertsonalerako tartea eskainiko du Cuzo taldeak gaur gauean. Za! taldeak, bestalde musika mota desberdinak ekarriko ditu, hainbat musika instrumenturekin. 23:00etan hasiko dira saioak, eta sarrerak 3 euro balio ditu.

### Berso txapelketa nagusirako sarrerak Elgoibarko Izarran

Abenduaren 15ean jokatu da bertso txapelketa nagusiko finala, BECen, eta Elgoibarko izarrak ikuskizun horretara joateko sarrerak jarri ditu salgai, 30 euroan. Bertsozale elkarreko bazkideen (21 €) eta gazteen (6 €) sarrerarik ez dauka elkarrekin. Horiek [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com), [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) edo takilan bertan erosi behar dira. Era berean, final nagusira joateko autobusa antolatu dute, eta taldean bazkaltzeko aukera ere egongo da. Autobuseko tiketaren prezioa 13 eurokoa da, eta bazkariak 18 euro balio ditu. Interesatuak azaroaren 29ra arte dute txartelak erosteko aukera. Edozein zalantza argitzeke idatzi [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) helbidera edo 943 741 626 telefonora hots egin.



# Elgoibarko ondare kulturala ezagutzeko bi irteera antolatu dituzte urrirako

Urriaren 5ean eta 19an izango dira saioak



**E**lgoibar Ondare Kulturala taldea sortu dute hainbat elgoibartarrek, herriko ondarea ezagutzera emateko asmoz. Horretarako, bi irteera antolatu dituzte urrirako. Urriaren 5ean izango da lehenengoa, Errosario kaleko jaien barruan. Pello Arrieta irakasle eta historiagile elgoibartararen laguntzaz, Elgoibarko kasko historikoa ezagutzeko ibilaldia egingo dute. 12:00etan batuko dira Kalebarren plazan, eta Errosario kalea, Kalegoen plaza eta San Bartolome kalea zeharkatuko dituzte.

Urriaren 19an, bestalde, Kalamua eta Akondia inguruetara egingo dute irteera. 36ko Gerran aditua den Jon Etxezarraga izango dute bidelagun, eta hango lubakiak eta aztarnak ezagutuko dituzte. Irteera hau Morkaiko mendizale elkartearen laguntzaz antolatu dute. 8:30ean batuko dira Aita Agirre plazan. Autoz joango dira Arrateraino, eta handik ekingo diote oinezko ibilbideari. Interesatuak izena eman beharko dute Morkaikoren egoitzan, urriaren 17rako. Informazio gehiagorako [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzi daiteke.

## Haritz dantza taldea, Valladoliden



Gure Txoko euskal etxeak gonbidatuta, Valladoliden izandira Haritz dantza taldeko kideak eta Elgoibarko Txistulariak. Domekako mezan dantzatu ostean, hirikokale eta plazetan dantzatu zuten, eta eguerdian euskal etxean egin zuten bazkaria. Iraila bete-betea izan dute Elgoibarko dantzariak: irailaren 7an Igartzako Ezpata dantzara gonbidatu zituzten eta Errosaioko Amaren ezpata dantza eskaini zieten beasaindarrei; irailaren 14an Lasturko san Nikolasetan aritu ziren dantzan, eta asteburu honetan Aiasiako San Migel jaietan eskainiko dute dantzaldia.

## 'Bi kamera xume' argazki erakusketa, hilaren 11ra arte

Ongarri argazki taldeak antolatuta, Angel Ispizua eta Roberto Botija argazkilarien lanak jarri dituzte ikusgai Kultur Etxean, eta hilaren 11ra arte egongo da erakusketa ikusteko aukera. Argazkilaritza digitalak ekarri duten iraultzatik apur bat aldentuz, oinarrizkoagoak diren kamerak erabiliz argazki on bati dagokion abilezia erakustea da bi artisten helburua. Euren ustez, argazkilariak menperatu behar du kamera, eta ez alderantziz. 18:30ean irekiko dute erakusketa.

## Kilometroetarako autobusak Elgoibartik eta Mendarotik

Urriaren 6an ospatuko dituzte Kilometroak Tolosan, eta Elgoibarko Izarrak eta Mendaroko Udalak hara joateko autobusak antolatu dituzte. Elgoibarko autobusa Sigmako zubitik irtengo da 9:30ean, eta 20:00etan itzuliko da. Interesatuak Elgoibarko Izarran eman dezakete izena (943 741 626). Mendaroko autobusa, bestalde, 9:00etan abiatuko da tren geltokitik, eta itzulera 20:00etan egingo du. Interesatuak Morroskilo den-dan edo udaletxean bertan erosi ditzateke txartelak.

## Argazki eta marrazki lehiaketa, 2014ko egutegia osatzeko

2014ko egutegia osatzeko argazki eta marrazki lehiaketa antolatu dute Udaleko Euskara eta Ingurumen Sailek, Ongarri argazkilaria elkartearekin eta ikastetxeekin elkarlanean. Egutegiaren goialdean argazki bat, eta behealdean, marrazki bat agertuko dira. Elgoibar Ikastolako ikasleek landaguneak, baserriak, baserriko bizimodua eta lana jaso beharko dituzte marrazkietan, eta, Herri Eskolako ikasleek, berriz, urtarok, paisaiak, mendiak, basoak, ibaiak-errekak... Guztiak ere Elgoibarri erreferentzia egiten dioten lekuak edo irudiak izan beharko dira. Urriaren 18ra arte entregatu ahal izango dira lanak, eskolan bertan. Argazkiak, berriz, Kultur Etxean aurkeztu beharko dira. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten duen edonork hartu dezake parte lehiaketan, eta bakoitzak gehienez, sei argazki aurkeztu ahal izango ditu.

## Zaleen aurrean egingo du debuta bihar Alkorta eskubaloi taldeak

Arrasateko Ford Mugarriren kontra jokatuko dute elgoibartarrek Olaizaga kiroldegian

Duela bi denboraldi mailaz igotzea lortu ostean, Nazional mailari eutsi zion iaz Alkorta Forging Group eskubaloi taldeak, eta aurten ere helburu berarekin hasi du denboraldia. Joan zen astean jokatuko zuten liga txapelketako lehen partida Zaragozan. Casa Blanca taldea izan zuten aurrez-aurre, eta 33-22 galdu zuten elgoibartarrek. Bihar, etxean jokatuko dute; zaleen aurrean egingo dute debuta, alegia. Arrasateko Ford Mugarri taldearen kontra jokatuko dute, eta Klubetik esandakoaren arabera, irabazi eta garai-pena zaleei eskaini nahi dute. 19:30ean hasiko da partida.

Era berean, Sanloko gainerako taldeak ere hasi dira lehian. Hala, Euskal Ligan diharduten Tecnifuelle eta Astigarraga GYS Sport taldeek Zumaiako Pulpo klubeko taldeen aurka jokatuko dute ligako lehen partida, kadete eta jubenil mailetan.



### Ermuko txapelketa

Ermuko eskubaloi txapelketa jokatuko zuten joan zen astean, Sanlok, Errotaberri, Lizarreriak eta Zuazok, jubenil eta kadete mailetan. Kadeteetan elgoibartarrek nagusitu ziren. Zuazo taldearen kontra 24-22 irabazi zuten, eta Errotaberri-

ren kontra, 18-16.


Jubeniletan, bestalde, hirugarren postuan sailkatu ziren elgoibartarrek. Zuazoren kontra 22-15 galdu zuten lehenengo partidatan, eta hirugarren posturako lehian, 27-25 hartu zuten mendean Errotaberri.

## Bigarren egin dute Larizek eta Maiorak Uharte Arakil-Beriaingo Kilometro Bertikalean



Euskal Herriko Bertikalen Zirkuitoko bigarren proba jokatuko zen domekan, Uharte Arakil-Beriaingo Kilometro Bertikala, hain zuzen ere. Guztira, 147 lagunek lortu zuten proba amaitzea. Gure ordezkariak dagokionean, bigarren egin zuten Iñigo Larizek eta Maite Maiorak. Gizonetakoetan Ionut Alin Zinca izan zen azkarrena, 0:42:42 denborarekin, eta irabazlearengandik 46 segundora ailegatu

zen gailurrera Iñigo Lariz. Emakumezkoetan Ibarroko Leire Agirrezabala izan zen azkarrena (0:49:47) eta Maite Maiora iritsi zen helmugara bigarren postuan, 0:50:30 denbora eginda. Denboraldiko azken mendi lasterketa izan da honakoa korrikalari mendaroarrantzat, sorbaldako arazo batzuk konpontzeko kirofanotik pasako baita.



### 8 urtetik gorakoentzako atletismo entrenamenduak

Mintxeta Atletismo Taldeak hasi du denboraldia. Astelehen, asteazken eta barixakuetan egingo dituzte entrenamendu saioak, Mintxetan, eta 8 urtetik gorako neska-mutilak animatu nahi dituzte entrenamendu saioetan parte hartzera. 19:00etatik 20:00etara bitartean Mintxetan agertzearekin nahikoa izango da.

### Viento Sur saskibaloi taldeak galtzen hasi du denboraldia

Joan zen asteburuan ekin zion Viento Sur taldeak aurtengo denboraldiari. Donostian jokatuko zuten Cafes Aitona taldearen kontra, eta elgoibartarrek 82-73 galdu zuten. Asteburu honetan Elgoibarren jokatuko dute.

# Aiastiera korrika igoera jokatuko dute domekan, San Migel jaien barruan

12:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik

**S**an Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastian, eta egitarauaren barruan, Aiastiera korrika igoera antolatu dute domekarako. 12:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Murkaikupe frontoirainoko ibilbidea egin beharko dute korrika. Guztira bost bat kilometro dauzka ibilbideak. Interesatuak lasterketa hasi aurretik eman beharko dute izena, Kalegoen plazan bertan.

luz 26 lagunek hartu zuten parte, eta Iñigo Lariz izan zen azkarrena, 19:49 denborarekin. Emakume bakarrak hartu zuen parte: Pilar de La Lamak, eta 32:15eko denbora egin zuen. Argazkian ageri da, semearekin korrika.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Balmaseda **3** – Haundi **0** (3. maila)

Elgoibar **1** – Eibartarrak **2** (Erreg.)

Kostkas **2** – Elgoibar **1** (Jub.)

Elgoibar **0** – Real Sociedad **3** (Kad. A)

Urki **4** – Elgoibar **0** (Kad. B)

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Ilunpe **18** – Lagunak **22** (1. mailako nag.)

Lagunak **22** – Eibar **2** (3. mailako nag.)

Lagunak **6** – Intxurre **22** (2. mailako kad.)

### PALA

Lagunak **25** – Atxurbide **13** (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile **2** – San Juan **3** (2. maila)

### ESKUBALOAIA

Casa Blanca **33** – Alkorta **22** (Sen. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

17:00 Haundi – Gernika (3. maila)

12:00 Elgoibar – Zumaiako (Jub.)

10:00 Elgoibar – Aurrera Ondarroa (Kad. B)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

16:00 Tecnifuelle Elg. – Zalla Pulpo (Kad. neska)

17:30 Astigarraga Elg. – Pulpo (Jub. neska)

19:30 Alkorta Elg. – Arrasate (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA

Barrakua, 27

22:00 Lagunak – Tartaloetxe (1. mailako nag.)

22:45 Lagunak – Usurbil (Pala. 2. mailako nag.)

## Jotasua realzaleen taldea indartu nahi dute



Elgoibarko realzeek Jotasua taldea indartu nahi dute, eta herritarrak gonbidatu nahi dituzte familia txuri-urdina handitzera. Bazkide berriak dituzte taldean, eta zuzendaritza talde berria osatzen ari dira. Taldeko arduradunek ekintza berriak antolatuko dituzte aurrerantzean, eta realzale guztiei egin diete ekintza horietan parte hartzeko deia. Informazio gehiago nahi izanez gero [jotasuatataldea@gmail.com](mailto:jotasuatataldea@gmail.com) helbidera idatzi edo 626 590 632 telefonora deitu daiteke.

LANA

ESKAERA

- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. ☎ 609 842 165
- Emakumea lan bila. Paperak eta erreferentziak ditut. ☎ 638 863 019
- Gizon gaztea lan bila. ☎ 662 576 146
- Mutil arduratsua edozein lan egiteko prest. ☎ 631 429 711
- Emakumea lan bila. Edozertarako eta edozein ordutegitan. ☎ 628 188 028
- Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, LH, DBH, kontabilitatea, ekonomia... ☎ 666 042 710
- Adin eta maila guztientzako ingeles eskolak ematen ditut. Azterketa ofizialetarako prestakuntza ere bai. ☎ 680 858 550 / 943 741 594
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Gauzez ere bai. ☎ 632 239 368
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. ☎ 618 814 064
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... eskolak emateko. Euskaraz zein gaztelaniaz, DBHn eta Batxilergoan. ☎ 699 495 278
- LH eta DBHko klase partikularrak emango nituzke. ☎ 637 010 168
- Alemaniera eskolak ematen dira. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukea eta azterketen prestaketa (EOI). ☎ 670 793 312
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Elgoibarren edo Eibarren lan egiteko prest. Klinika titulua daukat. ☎ 619 511 789 (Itxaso)
- Frantsesa, latina, euskara eta gaztelania eskolak ematen ditut. ☎ 617 114 185
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan ere bai. ☎ 632 395 829
- Emakume arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. ☎ 682 255 834

- Emakumea lan bila: sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusi edo ume zaintzaile... ☎ 606 354 982
- Mutila eskaintzen da baserri inguruak garbitu, animaliak gobernatu, ortuak zaindu edo beste hainbat lan egiteko. ☎ 620 710 139 (Aitor)
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ 646 821 678
- Neska gazte euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. ☎ 615 124 660
- Emakumea garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka, goizez. ☎ 699 232 823
- Emakumea lan bila. Orduka. ☎ 672 584 590
- Emakumea garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 616 328 060
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 608 820 954
- Emakumea eskaintzen da etxean zein ospitalean adinekoak zaintzeko. Gauzez ere bai. Esperientzia eta autoa. ☎ 600 005 160
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. ☎ 634 588 605 (Itxaso)
- Emakumea lanerako prest. Orduka. ☎ 680 121 252
- Emakumeak orduka lan egingo luke. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako egiten esperientzia. ☎ 619 690 415
- Emakumea lanerako prest. Asteburuetan ere bai. ☎ 690 359 554

ESKAITZA

- Sukalde laguntzailea behar da Elgoibarren, astean zehar lan egiteko. ☎ 687 051 789
- DBH1 eta DBH4ko ikasleei ingeles eskolak emateko pertsona behar da, Mendaron. ☎ 695 730 442

ETXEBIZITZAK

- Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 690 701 118

- Etxea salgai erdigunean. 91m2, dena kanpoaldera, igogailuarekin. Teilatua eta fatxada berrituta. 143.000 euro. ☎ 647 438 640
- Etxea salgai edo alokagai Errosario kalean. Hiru logela, egongela handia, sukaldea eta bainugela. Igogailurik gabe. Berritua. ☎ 647 438 640
- Etxea alokatzen dut altzariek. Eguzkitsua eta igogailuarekin. ☎ 653 863 482
- Etxea konpartituko nuke beste bikote batekin, Errosario kalean. ☎ 699 813 826
- Seme-alabak dituen bikoteak etxea hartuko luke alokairuan. Hilean 500 euro ordainduko genuke. Berogailua ezinbestekoa. ☎ 684 019 044

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Santa Klaran. ☎ 615 799 813
- Garajea salgai Lekuederren, 3. solairuan. Ate automatikoa. Prezio onen. ☎ 674 663 716
- Marradun bi garaje salgai Ikastola alboan, 4. eta 5. zenbakietan. ☎ 943 743 125 / 686 480 615
- Garaje itxia alokatzen da Kiroldegi parean. ☎ 689 781 069

BESTELAKOAK

- Lursail txiki bat erosiko nuke herri-erit gertu. ☎ 646 966 198

KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- 1988an jaiotako enafaria, azaroaren 9an, Karakate jatetxean. 19:00etan batuko dira, udaletxe azpian. 35 euro ordaindu behar dira, urriaren 13rako, kontu honetan: 2095 5036 50 9112978251



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**- Komunitate bateko etxebizitza baten jabea naiz, eta nire lanarengatik ezin naiz joan etxejabeon bileretara. Nola egin dezaket nire botoa aintzat hartu dezaten?**

Etxebizitzaren administratzaileak etxe jabea batzarrerako deia egiten dienean, idatzi horretan bertan, batzarrera joan ezin diren aukera eman behar die euren botoa delegatzeko. Beste pertsona batek eramango du haren botoa batzarrera, idatziz. Testuan argi azaldu beharko da batzarrera joan ezin duenaren izena, edo, bestela, bere ondasuna zer den jarri beharko da, eta baita nork ordezkatzeko duen ere. Dokumentu hori sinatzen duenak batzordean ordezkatzeko duenaren esku uzten du bere botoa. Gai zehrengatik bozkatzekoak diren gaietan bereaz gain ordezkatzeko dituen lagunei dagozkien boto portzentajea izango du pertsona horrek.

**Gomendioa: Botoa delegatu duenak aurkeztu beharreko idatzi horretan, pertsona horrek aukera izango du gai ordenako gaien inguruko iritzia emateko. Gero, administratzaileak eraman beharko du delegatutako botoen kontua. Berak egiaztatuko beharko du etxe jabeen ordezkariak zenbat diren eta haiek aurkeztutako idatziz zer dioten. Botoak idatziz delegatu behar dira beti; ahoz egiten diren ordezkariak ez dute balio.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldeko Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Manex!** Ondo-ondo pasa zure urtebetetze egunean. Axular eta Aratzen partez.



• Zorionak gure txapeldun txikiari, ostegunean 4 urte egingo dituelako. Julia, Edu eta Mari Marren partez.



• Etxeko aingeru bihurriari, zorionak!



• Zorionak, **Manex,** gaur zure 6. urtebetetze eguna delako. Denon, eta bereziki, anaia Xabaten partez. Txutxemuxu bat zuretzat!



• Zorionak, **Xabier,** asteazkenean 6 urte bete zenituelako. Familiako eta bereziki Iruneren partez.



• Zorionak, **Elene,** gaur 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako eta bereziki, Maria, Xabat eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Naroa,** irailaren 24an 3 urte egin zenituelako. Muxuak familiako eta bereziki, Malen eta Unaxen partez.



• Zorionak, **Danel,** atzo 7 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Oinatz!** Gaur 6 urte! Ondo-ondo ospatu eta muxu potolo bat lhintzaren eta etxeko partez.



• **Maddi,** asteartean 8 urte! Zorionak eta ondo-ondo pasa, zuk dakizun guztien partez.



• Zorionak, **Nora,** polita! Atzo 2 urteko! Gurasoen eta familiako partez, muxu potolo bat.



• Zorionak, **Ander,** hilaren 30ean 12 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, Nerea, Paula, Sara, Leire eta Enararen partez. Muxu bat.



• Zorionak **bikote,** zuen urtebetetze egunean eta urrezko ezteietan. Trini, San eta etxeko partez.



• Zorionak, **sorgintxo!** Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Patxo handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak **Juani eta Maddi!** Gaur Maddiren 9. urtebetetzea, eta igandean, Juanirena. Muxu bat familiako denon partez.




• Zorionak, **bikote!** Egun ona pasa! Juneren eta familiako partez.



• Zorionak, **Izar eta Naroa!** Muxu handi bat gure printzesei! Familiako guztien partez.




• Zorionak, **Lorena eta aita!** Gure erreginak 10 urte ditu dagoeneko, eta zuk, aita, zenbat? 25? Muxu handi bat Maitaneren eta amatxoren partez.



Hurrengo aste guztian zehar,  
ate irekiak Ludotekan.  
Anima zaitetz  
gurekin jolastera!

Urriaren 5ean Lasergunera  
irteera, DBH1ekoentzat.  
Eman izena irailaren 29a  
baino lehen, Gaztelekuan



## 27 barixakua

### Jardunaldia

18:30 Aiten zaintzarako trebetasunak

Aitatasunari buruzko jardunaldiak, Kultur Etxean.

### Erakusketa

18:30 '2 kamera eskas'

Roberto Botija eta Angel Ispizuaren argazki erakusketa. Kultur etxean urriaren 11ra arte.

### Musika

23:00 'Sotoko Hotsak'

Cuzo taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## 28 zapatua

### Feria

9:00 Azken zapatuko azoka

Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, Kalebarren plazan. Ganadu feria Aita Agirre plazan. Txosna, Elgoibarko Izarrak jarriko du.

12:00 Kale Kantariak.

Ordu berean, talo tailerra.

### Jardunaldia

9:00 Energia burujabetza

Energia berriztagarriak, energia aurrezteko aholkuak eta energia kooperatibei buruz jardungo dute, besteak beste. Musika Eskolako auditorioan.

### Musika

23:00 'Sotoko Hotsak'

Zal taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## 30 astelehena

### Aisialdia

19:00 LOMCE hezkuntza sistema

Euskal Herrian bertako hezkuntza sistema eraikitzeko pausoak eman nahi dituzte. Kultur Etxean.

## 2 eguaztena

### Linea

21:30 Extraños en un tren

Iratxo tabernan. Pantaila handian, Alfred Hitckock zuzendariaren filmak emango dituzte urriko eguaztenetan.

## 3 eguena

### Aisialdia

18:00 Gaztemapping

Gazteen aisialdi ohiturak ezagutzeko tailerra. Kultur Etxean.

## AIASTIAKO JAIK

### 27 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea, jaiei hasiera emateko

21:00 Bertso afaria. Julio Soto eta Peñagarikanorekin.

Ondoren, disko festa

### 28 ZAPATUA

13:00 Umeen jolasak

Segidan, umeen bazkaria

17:00 Artzain txakur txapelketa

Euskal Herriko arraza libreko txapelketa.

22:30 Haritz dantza taldearen emanaldia

Borja Uzuriagaren omenez.

Ondoren, erromeria. Kupela taldearekin.

01:00 Bolo txapelketa

### 29 DOMEKA

SAN MIGEL EGUNA

11:30 Meza

Ondoren, Baltzola Anaiak trikitaliak

12:00 Aiaziara korrika igoera

17:00 Idi demak

Ondoren, Baltzola Anaiak trikitaliak

## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

27 Barrenetxea  
28 Ibañez  
Goizez: Yudego

29 Ibañez  
30 Garitaonandia  
1 Etxeberria  
2 Fernandez  
3 Yudego

### Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea  
Yudego

### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Días de pesca en Patagonia»

Ongarri zinekluba

27, barixakua: 22:15

Zuzendaria: Carlos Sorin. Argentina, 2012. 80 min. Drama. Aktoreak: Alejandro Awada, Victoria Almeida, Diego Caballero. 50 urteko alkoholiko ohia da Marco. Alkoholarekin duen arazoa gainditzeko aisialdi ohitura berriren bilatzeko gomendioa egingo diote, eta arrantza aukeratuko du. Patagoniako herri txiki batera joango da arrantzara, aspaldian ikusi ez duen alaba bizi den herrira, hain zuzen ere.

### «Una casa en Córcega»

Ongarri zinekluba

28, zapatua: 19:00/22:15

29, domeka: 19:00

30, astelehena: 21:30

Zuzendaria: Pierre Duculot. Frantzia eta Belgika, 2011. 82 min. Drama. Aktoreak: Christelle Comil, François Vincentelli, Jean-Jacques Rausin. Thierry Jonquet idazle frantziarraren 30 urteko gaztea da Christina. Zerbitzari lanetan dihardu, eta bizitza monotonoa dauka, Marco bere mutil-lagunarekin batera. Amona hiltzean, Korsikan daukan etxea lagako dio testamentuan. Hara egingo duen bidaiak, bizitza aldatuko dio.



*euskaraz hitz egiteko*  
**Tertuliak**

Izena emateko azken eguna:  
**urriak 11**

**INFORMAZIOA:**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte  
 Ubitarte, 4, behea  
 943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)

**ELGOIBARKO IZARRA 50**  
 KULTUR ELKARTEA



**UNTZAGAN**

# #SagardoEguna

## EIBARREN

antolatzaileak:



Euskara Elkarteak  
 laguntzaileak:






**Urriak 5, zapatua** 12.00-14.30/19.00-amaitu arte

# DENDAK BIZIRIK eta STOCK FERIA



urriak 4 eta 5  
Elgoibarren

**Ostirala 4**

17:00 - 18:00

Txankakuaren dendetako ERAKUSLEHIOETAN bilatu Txankakuaren logotipoa duen objektu bat, eta aurkitzen baduzu, 100 eurora arteko erosketa baleak eskuratu ahal izango dituzu.

18:15 - 19:45

TRILITA



Umeentzako antzerki ibiltaria.



**Larunbata 5**

10:30 - 14:30

STOCK FERIA (Lehueder parkea)



14:00

ZOZKETA 600 €